# TASA ZABORRA BILDU, GARRAIATU ETA TRATAZEAGATIK
TASA DE RECOGIDA DE BASURAS, TRANSPORTE Y TRATAMIENTO

## OHIKO GALDERAK
PREGUNTAS FRECUENTES

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-BAS-02-DN.504 //**

| | |
|---|---|
| **0582020060501**<br>**Nork ordaindu behar du zabor-tasa?** | **0582020060501**<br>**¿Quién tiene que pagar la Tasa de Basura?** |
| Industria-, merkataritza-, lanbide-, arte- eta zerbitzu-jardueretarako, gizarte-, kultura- eta kirol-jardueretarako edo hirigintza-plangintzan edo errentari buruzkoan aurreikusitako izaera ekonomikoko beste edozein erabileratarako etxebizitzaren, ostatuaren, lokalaren edo establezimenduaren jabeak, betiere Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan abonatu gisa agertzen bada. | El propietario de la vivienda, alojamiento, local o establecimiento destinado a actividades industriales, comerciales, profesionales, artísticas y de servicios, sociales, culturales, deportivas o cualquier otro uso de carácter económico y previsto en el planeamiento urbanístico o el arrendatario, siempre que figure como Abonado en el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia. |
| **0582020060502**<br>**Zenbat aldiz ordaindu behar dut tasa?** | **0582020060502**<br>**¿Cuantas veces tengo que pagar la tasa?** |
| Zabor-tasa hiru hilean behin sortzen da. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ordainagiri bat igorriko du gutxi gorabehera 90 egunean behin, zerga-kuota adieraziz. Ordainketa helbideratu ahal izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergora jo beharko duzu. | La Tasa de basuras se devenga de forma trimestral. El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia emitirá un recibo cada aproximadamente 90 días, con la cuota tributaria resultante. Se podrá domiciliar el pago. Para mayor información deberá acudir al Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia. |
| **0582020060503**<br>**Nola jakin dezaket erosi dudan eraikina nire izenean ote dagoen zabor-tasaren ondorioetarako?** | **0582020060503**<br>**¿Cómo puedo saber si el inmueble que he comprado está ya a mi nombre a efectos de la Tasa de Basuras?** |
| Tasa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen du, eta, beraz, erakunde honetara jo beharko duzu alta-prozedurari buruzko informazioa jasotzeko. | La Gestión de la Tasa la realiza el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, por lo que deberá acudir a esta entidad para informarse sobre el procedimiento de alta. |
| **0582020060504**<br>**Ez dut jarraituko jarduera komertziala egiten nire jabetzako establezimendu batean. Zaborrak biltzeko tasa ordaintzen jarraitu behar dut?** | **0582020060504**<br>**No voy a seguir realizando mi actividad comercial en un establecimiento de mi propiedad. ¿Tengo que seguir pagando la Tasa de Recogida de Basuras?** |
| Bai. Zaborrak Biltzeko Tasaren zergapeko egitatea jardueretarako lokaletan edo establezimenduetan nahitaez jaso beharreko zerbitzua ematea da. Beraz, ez da beharrezkoa establezimendua edo lokala irekita edo funtzionamenduan egotea, baizik eta hirigintza-plangintzan aurreikusitako jarduera ekonomikoetara bideratuta egotea. | Sí. El hecho imponible de la Tasa de Recogida de Basuras es la prestación del servicio, de recepción obligatoria, de recogida en locales o establecimientos destinados a actividades. Por lo tanto, no es concluyente que el establecimiento o local esté abierto o en funcionamiento, sino que esté destinado a actividades económicas previstas en el planeamiento urbanístico. |
| **0582020060505**<br>**Etxebizitza batean alokatuta egon naiz, eta errentamendu-kontratuan hitzartu genuen zaborragatiko tasa nik ordaintzea. Errentamendua amaitu da. Zer egin behar dut zabor-tasan baja emateko?** | **0582020060505**<br>**He estado arrendada en una vivienda, y en el contrato de arrendamiento pactamos en su día que se me repercutiera la Tasa de Basura. El Arrendamiento ha concluido. ¿Qué tengo que hacer para darme de baja en la Tasa de Basuras?** |
| Tasa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen du eta, beraz, erakunde honetara jo beharko duzu baja-prozedurari buruzko informazioa jasotzeko. | La Gestión de la Tasa la realiza el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, por lo que deberá acudir a esta entidad para informarse sobre el procedimiento de baja. |
| **0582020060506**<br>**Merkataritza-erabilerarako lokal bat erosi dut, ur-hartunerik ez duena. Zabor-tasa ordaindu behar dut?** | **0582020060506**<br>**He comprado un local destinado a uso comercial que no tiene toma de agua. ¿Tengo que pagar la Tasa de Basura?** |
| Bai. Nahiz eta ur-tasa zabor-tasarekin batera fakturatu ohi den, ura fakturatu beharrik ez izateak ez du esan nahi zaborragatiko tasa ordaindu behar ez denik. Lokala jarduerak egiteko bada eta Udalak hondakinak biltzeko zerbitzua ezarri badu, dagokion Zaborra biltzeko eta Garraioa Tratatzeko Tasa ordaindu beharko da. | Sí. A pesar de que la tasa de Agua se suele facturar junto con la de Basura, el hecho de que no sea necesario facturar el agua no implica que no se deba pagar la Tasa de Basura. Si el local está destinado a la realización de actividades, y está establecido el servicio de recogida de residuos por el Ayuntamiento, se deberá abonar la correspondiente Tasa de Recogida de Basuras, Transporte Tratamiento. |
| **0582020060507**<br>**Uste dut gaizki kobratzen ari zaizkidala ostalaritzako nire lokalaren tarifa, metro koadro gehiagoko azalera duen lokal bati dagokion tarifa aplikatzen ari baitira. Non aurkeztu behar dut erreklamazioa?** | **0582020060507**<br>**Creo que me están cobrando mal la tarifa por mi local de Hostelería, puesto que se está aplicando una tarifa correspondiente a un local con más metros cuadrados de superficie. ¿Dónde debo presentar la Reclamación?** |
| Erreklamazioa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan aurkeztu beharko da, frogatu nahi den egitatearen egiaztagiriekin batera. | La reclamación se deberá presentar en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, junto con la documentación acreditativa del hecho que pretende probar. |